

EZ DOZU IÑOR ILGO

BETIRAKO

Sinai mendian eta arri-losetan idatzita Jainkoak Moises'eri emon eutsan legean agertzen dira berba gogoangarri oneik eta ez dira Israel'darrentzat, beste barik, emonak, mundu guztiarentzat eta gizaldi guztietarako baliokoa dan agindua da.

Baiña, gaur batez be, beti begien aurrean euki bear dan legea da ori.

Orantsura arte iltzailleak il leikezela zan munduaren eritxia eta gaur be orretan jarraitzen dabe laterri askok, USA bera aurrerengo dala, eta Eleiza osorako zabaldu dan Katekesi-liburuak be onartzen dau laterri batzuk dauken jokabide ori, baiña baten bat ilteko eskariak agertzen diranean, Aita Santua bera izaten da lenengoa orretara epaituak izan diranai bizia parkatzeko eskatzen dauana.

Eta Biblia'tik kanpora be zabal dabil agindu ori, Koran'en eta arabiarren artean be bai, baiña zori txarrez, oraindiño be, ezkontza nasteen arrapatzen dabezanak arrika ilten dabez. Basatikeri aundia da ori.

Orantxe daukagu begien aurrean Sadan Husein iltzaille aundiaren epaiketa. Zer egingo dabe? Il egingo ete dabe? Or be agertuko da munduaren eta Aita Santuaren abots zolia: Ez dozu iñor ilgo!

GAUR BEAR-BEARREKOA

Lotsagarria da gure aldi oneitan gudarako dagon jokabide ankerra. Lotsagarria, baita, gaur ain zabal dabilen izubidea edo terrorismoa, ETA'ren arazoa eta USA'ko irailaren 11n.eguna kontuan doguzala.

Baiña izukeri ori alboratzeko bidea ez da arerioak edo terroristak iltea, ez da orretarako diran erakundeai gogorkeriz erantzutea, ez da gudea irabaztea. Zentzun geiago dauka Kataluña'ko ezkertarrak artu daben bideak.. Egia esan, ez da onartzekoa Kataluña'n eta inguruetan iñor ez ilteko eskatzea, baiña bai alkar-izketarako artu daben bidea.

Urtenbidea ez da ETA'koak iltea edo ETA azpiratzeta. Alkar-izketa da bide bakarra, ez guda irabaztea.

USA'tarrai be pizka bat pentsau. erazo bear dautsegu: Zergaitik jazo zan irailaren 11n.eguneko sarraskia? USA'tarrak ondo bizi eta ardura gitxi artzen dabelako munduko gosea kentzeko, muduko beartsuai urtenbidea emetoko.

Egia da Bin Laden ez dala txiroa, baiña bai beronek artu daua munduko txiroen arazoari okerreko erantzun bat emotea. Urtenbidea ez da Bin Laden arrapau eta espetxeratu edo iltea, ez, USA'tarrak pentsatu begie ondasunak ondo banatzeko eta munduko txirotasuna ta gosea kentzeko zer egiten daben.

Azterketa ori egiten ez daben artean, erantzun egozia emoten ez daben artean, beti izango dira arrisku aundi baten: Mundua gosez ilten dago eta orrelan ezin

egin lei bakerik Munduko erri guztien garapena billatu bear da.

GUDAK

Beti izan dira munduan guda eta ugari izan be, baiña gizaldirik negargarriena XX gizaldia izan da, ludiko guda bi ikaragarriak eta beste guda asko izan dauzala, eta kizi edo atomo indarra erabilli daua.

Baiña ludiko bigarren guda amaitu zanean geiago gudarik ez egiteko eta ONU'n alkartuta arazoak bideratzeko erabagia artu zan. Erabagi ederra!

Eta zer jazo da gaur? USA'k bere bidea artu daua, gudaren bidea, izuzaleak azpiratzeko. Guzurrez jokatura gaiñera, uste eben izkilluak agertu ez diralako. Eta jokabide okerreri eutsi dautso España'ko gobernuak, Toni Blaer agintari inglesagaz batera. Okerreko bidea! Eta ondorenak ikusten gagoz, ara joan diran errubako gudarriak ilda ikusten doguzanean. Ez da ori bidea! "Ez dozu iñor ilgo" esan ebanak, gaur "ez dozu gudarik egingo" esango leuke.

Eta guda irabazten dauanak zer egin bear dau? Zer egin bear da gaur Irak'en? Ba, asieran egin bear zana, axe bera: Alkar izketa. Eta ez goitik bera aginduak ipiñi.

Ludiko bigarren gudan artu zan erabagia bete bear zan: Ez gudarik! ONU'ren bidea.

ESPETXERATUAK

Usa'tarrak arrapau dabez ainbat arerio, euren ustez irailaren 11n. eguneko ondamendia egin ebanak, eta an daukez Guantanamo'ko espetxe lotsagarrian, ezelako giza-eskubiderik kontuan artu barik, errudunak dirala ziur jakin barik, euren buruen alde jokatzeko abokatu barik, noizarte egongo diran jakin barik... Lotsagarria!!! Laterri gizabideratu betek artu leike olako jokabiderik? Erru guzti oneik, zalantza barik, USA'tarren gaiñera etorriko dira.

Eta jokabide orrek ez dau mundua oberatzen, txarrari indarra emoten dautso. Eta orrelan, Irak'eko gudaren ostean ohea izan bear leuken mundua, txarragoa biurtu jaku.

ARERIOAK

Barriri Biblia'ra sartzen garala, gaur arerioak edonon eta ugari agertzen dira. Eta zer egin bear da arerioakaz? Euren aurka guda egin eta azpiratu? Ez orixe! Aurka daukaguzan erakundeak zapuztu eta eurai irabazi? Ez orixe! Alkar izketa eta munduko auzitegia dira bideak, ez guda irabaztea.

"Ez dozu iñor ilgo", "ez dozu gudarik egingo".

Olazar'tar Martin'ek